

Elikagaien Berrikuntzarako 2019ko BTEM sarien banaketan

EROSKI SARITU EGIN DUTE OSASUNAREN ETA JASANGARRITASUNAREN ALDE EGIN DUEN APUSTUAGATIK

- Epaimahaikoak saritu egin du, halaber, EROSKI elikadura kateko beste enpresa batzuekin jarduteko duen gaitasuna, orobat on line erosketarako kanala garatzearen aldeko apustua, zeinarekin mundu fisikoko abantailak on line supermerkatuan erakusten dituen
- Sariak AZTI gune teknologikoak eta Euskadiko Elikaduraren Clusterrak emanak dira, eta aurrez bigarren antolatutako, elikaduraren sektorea balioan jartzeko eta enpresa jarduerak onartzeko

Bilbo, 2019ko azaroaren 22a.- 2019ko BTEM saria eman diote [EROSKI](#)ri, merkatu berrikuntzaren kategorian, zergatik eta bere negozio ereduaren elikaduraren, jasangarritasunaren eta tokiko produktuaren aldeko lanean aurrerakaria izan delako eta izaten jarraitu duelako. Elikadura Berrikuntzaren BTEM sariak bigarren urtez banatu zituzten atzo AZTI zentro teknologikoak eta Euskadiko Elikaduraren Clusterrak; eta sarien helburua da elikaduraren sektorea balioan jartzea eta enpresa arloan jardunbide onak sustatzea.

Sarien banaketa ekitaldia Bilboko Bizkaia Aretoan izan zen, eta hor izan ziren Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapenerako sailburua; Rogelio Pozo AZTIko zuzendari nagusia; Manu Giner Euskadiko Elikaduraren Clusterreko presidentea; eta Alejandro Martinez Berriochoa EROSKIko Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendaria; berak jaso zuen EROSKIri eman zioten saria, eta, horietaz gain, bertan izan ziren halaber elikaduraren balio katean diharduten askotariko eragileak.

Sariarekin EROSKI gizarteari laguntzeko duen konpromisoa saritu dute, izan ere, elikadura orekatu batean oinarritzen den bizimodua sustatzen baitu; orobat saritu dute elikaduraren kateko beste enpresa batzuekin jarduteko duen gaitasuna eta on line erosketen kanala garatzeko egin duen apustua. Hain zuzen ere, kontsumitzaileek kooperatibarena aukeratu dute on line supermerkatu onena. *"Elikadura osasungarriagoa eta jasangarriagoa sustatzea da EROSKIren nortasun ezaugarrietako bat kontsumo kooperatiba den aldetik. Osasunaren eta jasangarritasunaren aldeko konpromisoa presente dago ez bakarrik gure dendetan,*

baizik eta baita gure ekintza guztietan ere; esaterako, hor dira Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde harturiko konpromiso berrituak", esan du EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Epaimahaikoak EROSKIren zenbait ekintza nabarmendu ditu; ekintza horiek ardatzean jartzen dute kontsumitzailea produktu osasungarriak hautatzeko orduan. Hor dago, halaber, Nutri-Score nutrizio arloko etiketa jartzearena, eta Ekilibria tresna digitala, ahoratzen diren elikagaien talde askotarikoak hobetzeko eta egokitzeko sortua. Nabarmentzekoa da, baita ere, produktu osasungarrien aldeko apustua, aurrendaria izan baita landare gantz partzialki hidrogenatuak kentzen (trans gantzaren iturri direlako) eta azukre, gantz eta gatz kopuruak gutxitzen bere markako produktuetatik.

EROSKIri saria eman dion beste konpromiso garrantzitsu bat zera da, milioi eta erdi ikasle baino gehiago formatu dituela bere Elikadura eta Ohitura Osasungarrien Heziketa Programan 2012an hasi zenetik; horretaz gainera, zortzigarrenez jarraian jaso du saria Bezeroari Erantzuteko zerbitzuagatik.

Sari banaketa

Sari hauek lehen urtean, 2017an, Euskadiko Elikaduraren Berrikuntza Sariak izena hartu zuten, eta aurrean BTEM sariak izena hartu dute, hau da, Berrikuntza, Teknologia, Enpresa eta Merkatua.

Sari banaketan, EROSKIz gainera, saridunak suertatu dira Echebaster atun enpresa, berrikuntza teknologikoaren kategorian eta Bizkaiko Txakolina upategia enpresa arloko berrikuntzaren kategorian.

Euskal Autonomia Erkidegoko elikadura arloko balio kate osotik hogeitabat enpresa aurkeztu dira bigarren sariketa honetara. Epaimahaikoan, berriz, denen buru egon da AZTIko presidentea eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordea, Bittor Oroz, eta aurreko urteko enpresa irabazleetako ordezkari osatu dute: Angulas Aguinagaren sortzaile Ignacio Muñoz, Cafe Fortaleza Taldeko zuzendari nagusi Javier Ruiz eta Araex Grands Spanish Fine Wineseko presidentea eta sortzaile Javier Ruiz de Galarreta; horietaz gainera, sektoreko berrikuntzan ospea duten hiru aditu independente egon dira: Leire Bilbao Innobasqueren sortzailea; Lantern kontsultorearen bazkide fundatzaile eta sortzailea eta Loop Unique Companies kontsumo handiko zuzendaria, Marta Vallbe.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)